




1994ko apirilak 22

232. zenb.

PRESS

ARRASATE



**Juanjo Perez,
El Salvadorretik
bueltan**

Oinez eta bizikletan

**Trenbidean
zehar**



AMORE EMANGO DUZU!

Spek
Denda

Iturriotz, 19
Arrasate

UDABERRIA

ETEO
OÑATI

ENPRESA-IKASKETETAKO
UNIBERTSITATE-ESKOLA

San Lorentzo, z/g.
Tfnoak: 78 13 11 - 78 12 51
FAX: 78 31 48



1994-95 IKASTURTERAKO
ESKAINITZA

IKASKETA ERTAINETAN

LANBIDE HEZIKETA

- ADMINISTRAZIO, MARKETING ETA INFORMATIKA ARLOAK
- HIRUGARREN MAILAKO MODULUETAN
 - Gestio-Programatzailea eta Nazioarteko Merkataritza


GOI MAILAKO BATXILERGOA

- ADMINISTRAZIOA ETA GESTIOA

IKASKETA HAUEK BUKATU ONDOREN,
UNIBERTSITATE MAILAKO
"ENPRESA ZIENTZIETAKO IKASKETAK"
BURUTZEKO BIDE ZUZENENA

UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETAK

- ENPRESA ZIENTZIAK
 - Finantzak eta Kontabilitatea
 - Marketing eta Komertzial arloa
 - Informatika



Gaituzte ezkontarazi

Gizakiok bakarka ezin gara bizi. 1) Haur txikiak, babesa eta maitasuna behar du ongi hezitzeko. Familiak babesa eta maitasuna ematen ez badio, haur hori nagusi bihurtzen denean, oinarri finkorik gabe, bere buruarengana konfiantzarik gabe hazitzen da, eta ondoren, inguruan isuriko du bere haserre eta samina: ukatu egingo du lehen bera ukatu duen gizartea, onartu ordez zapuztu duena. Eta saiatuko da jaso duen kaltea gizaritari bueltatzen.

Bestelako arrazoirik izaten bada ere, hasiera honek ematen digu egungo gizaritari kalte egiteko gazte eta nagusi askok duten herraren giltza: inbiria, gaizki esaka ibiltzea, lapurreta, apurketa,...

2) Nagusiak bakarrik aurkitzen dira gizaritearen aurrean. Biziraupenerako, beharrezkoa dute inguruko onginahia eta onarpena, eta ezinduak aurkitzen direnerako babesa. Gizakia ezin da bere buruarekin pakean bizi ingurukoengandik istimatua dela ikusten ez badu. Eta halako lasaitasun bat ematen dio ezindua dagoenerako (gaisotasunean,

zahartzaroan,...) laguntza antolatua izateak.

Familian hazi eta hezitzen da lehenengotik haurra; eskola, lagunartea, lantegia, aisialdia, erlijioa, osasuna, politika, komunikabideak,... geroz eta garrantzi handiagoa hartzen dute pertsona nagusitzen doan heinean. Hauetako batzu, ezarriak dira, hautatuak besteak. Adibidez, famili batetan jaiozen gara, guk hautatu gabe. Beharrezkoa dugu, ordea, gure jatorria onartzea, gizaritean geure lekua aurkitu nahi badugu.

Aipatutako arlo bakoitzean modu askotako eskaintzak ditugu, eta aukera batzu egiten ditugu, askatasun gehiago edo gutxiagorekin. Gero gertatzen da gure aukera bakarrik jotzen dugula ona eta txarrak gainerako guztiak.

Gure gizaritean, azken alde honetan nabarmentzen da alderdi politikoez duten erenegamendua, besteen txarkeriak salatzeke, beste alderdiek zer egin behar duten esateko. Baina ez zaie bururatzen beraiek gaizki egin dutena aitortzea, zertan aldatu behar duten azaltzea,...

Familian bezala lantegian, politikan edo edonon, hautatu gabeko bizilagunak edo taldeak inguruan izan arren, behartuak gaude elkarrekin bizi izatera (edo eta beste gizarite batetara aldegitia). Abestiak dioen bezala "ezkontarazi gaituzte, gaituzte ezkontarazi, ezkontarazi gaituzte, ez zindudalarik maite".

Eta posible da bakoitzaren nortasuna eta taldearen proiektua ukatu gabe, elkarbizitza ahalbideratzeko gauza batzuetan amore ematea. Honetarako abiapuntua bestearen onarpena da, bestea esistitzen dela onartzea, ez noski haren proiektua onartzea.

Abestiak adierazten digu egoera nola bideratu: "gaituzte ezkontarazi, elkarrekin behar bizi, ezkontarazi gaituzte, elkar behar dugu maite."

RUFINA OLASAGASTI



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazlea:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñhntza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopia, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Karmelo Uribarren.



Mendi taberna

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

I z a d i

Sendabelarrak, dietetika eta
kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren
kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Montezino, 8 79 03 56



Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

••••

Erdu-AEK euskaltegiak Arrasateko herriari

Gutun honen bitartez Arrasateko herria zoriondu nahi dugu, AEKrekiko babes maila handia erakutsi duelako.

Herrian egon den gizarte inplikazioa oso positibo baloratzen dugula jakinarazi nahi dizuegu. Euskaltzalegoa eta gizatea mobilizatzea lortu da euskararen normalkuntzarako garrantzia daukan gai baten inguruan, eta hori guztiz positiboa da. Hor daude 140.000 sinaduratik gora bilduak, manifestazio arrakastatsua,...

Hona hemen Kultura Sailarekin izandako harremanen berri:

Kultura Saila AEKren-gana zuzendu zen eta bi bileren ondoren, aurten AEKk jasoko duen diru kopurua zehaztu eta elkarrizketa prozesu bati hasiera ematea erabaki zen.

Martxoaren bukaera al-

dean aurre-akordio bat sinatu zen HABE eta AEKren artean eta elkarrizketak hasiko liriateke hurrengo hilabeteetan. Elkarrizketen helburua AEKko euskaltegiak onartzea da. Horretarako HABEk irakasleak onartzeko bide adostua zabalduko luke. Hori lortzeko bitariko batzordea sortuko litzateke.

AEKren helburua elkarrizketa hauetan behin-betikoko konponbiderako bidea bultzatzea izango da. Elkarrizketa hauek hauteskunde giroak baldintzatutakoak izango dira.

Elkarrizketen emaitzak, egotekotan, hurrengo Jaur-laritzak bermatu behar ditu, eta horretarako alderdi guztien jarrera landu behar da. Honetarako AEKk prestatu zuen kanpainari jarraituko zaio eta hurrengo hilabeteetan AEKk herriz-herri egiten duen lanaren aldarrikapena egingo da. AEKren lana sostengatzeko AEKIDE KANPAINA burutuko da eta maiatzaren 22an AEKANPADA izango da.

ERDU EUSKALTEGIA

••••

Zorionak Oza

Apirilak hogeitabosta da egun berezia. Zuretzat. Guretzat ere bai. Zergatik? Badira urte batzu lehengo aldiz mundua ikusi zenuela. Pertsona asko poztu zenituen zure etorrerarekin. Jarrai urte askotan mundu honetako eguzki izpi bat gehiago zerala gogorarazteko.

“ZURI BELTZ”.



Laguardia Nekazalturismoko etxea

- Bazkari, merienda, afariak (enkarguak telefonoz)
- Uztako ardo salgai (botilak nahiz garraioak)

RAMON BELLO


Tfnoak: 941- 10 01 91 79 42 70

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK

 **77 08 15**

Erosketak herritik kanpo egiten dituzu?




Joaquin Martinez
Jubilatua (70 urte)

Lehen Gasteiza joaten ginen erosketak egitera, baina Eroski Arrasaten jarri dutenetik ez gara joaten. Akaso, noizean behin jantziren bat eroatera kanpora joaten gara.



Felisa Ezkurra
Etxekoandrea (71 urte)

Arrasaten nahikoa denda dago, eta nik herrian egiten ditut erosketak.



Iban Lizarralde
(19 urte)
Ikaslea

Erosketak herrian egiten ditut. Niri kiroletarako erropekin jaztea gustatzen zait eta hemen kirol denda onak daude.



Romana Garcia
(62 urte)
Etxekoandrea

Ez, herrian egiten ditut erosketak, beste herrietako dendak ez baititut ezagutzen, horregatik dena hemen erosten dut.




Jon Agirreurreta
(16 urte)
Ikaslea

Dena herrian erosten dut, erosketak egitera ez naiz herritik kanpora joaten.



Isabel Egia
(24 urte)
Ikaslea

Nik erosi behar badut herrian, baina amarekin banao Gasteizen egiten ditugu erosketak.




Goio Izazelaia
(31 urte)
Langilea

Beti hemen erosten ditut, kanpoan ez dago ezer apartekorik eta.



Amaia Uranga
(26 urte)
Ikaslea

Ni zumaiarra naiz baina Donostian aukera handiagoa dagoenez, bertan egiten ditut erosketak.



HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE



PUB HAIZEA

arrasate

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 22	
Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías	
Larunbata 23	
Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.	
Igandea 24	
Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.	
Astelehena 25	
Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.	
Astearte 26	
Egunez eta gauez: Amezua. Santa Marina.	
Asteazkena 27	
Egunez eta gauez: Ruiz. Magdalena.	
Osteguna 28	
Egunez eta gauez: Morales. San Andres.	

22 OSTIRALA

ZINEA
"M Butterfly". (Azpiztitulatu) 7.30etan eta 10etan.

AITA MENNIKO KULTUR EKINTZAK
Al Andalus elkarteak "Garcia Lorca" obra antzeztuko du. Arratsaldeko 5etan, Ekintza Aretuan.

KUADRILEN BATZARRA
Aurtengo San Juanak prestatzeko bilerak. Arrasateko koadrila guztiek partehar dezakete. Arratsaldeko 7etan, Montterongo areto nagusian.

BILERA
Herri Urratsen Iparraldeko ikastolen aldeko jaietan lanean laguntzeko asmoa dutenentzat. Arratsaldeko 7.30etan, AEDren lokalean.

ANTZERKIA
Taun-Taun taldeak, "Taun-Taun Show" obra antzeztuko du. Gaueko 10etan, Aretxabaletako Zeraia zineman.

KONTZERTUA
"Bucal Seal" taldearen kontzertua. Aterpe Kafetegian. Gaueko 11etan.

ABESBATZEN VII TOPAKETAK
Deba Garaiko eskolek parte hartuko dute. 700 ume kantuan. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta. Musakolako kiroldegian, zapatuan, arratsaldeko 4.30etik aurrera.

ABESBATZEN VII TOPAKETAK

Deba Garaiko eskolek parte hartuko dute. 700 ume kantuan. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta. Musakolako kiroldegian, zapatuan, arratsaldeko 4.30etik aurrera.



23 LARUNBATA

ZINEA
"Lo Que Queda del Día". 5etan 7.30etan eta 10etan.

AITA MENNIKO KULTUR EKINTZAK
Al Andalus elkartearen "Alegria de la Sierra" abesbatzaren emanaldia. Arratsaldeko 4.30etan, Ekintza Aretuan.

ALTAMIRAKO JAIK
Goizeko 10.30etan Suzirien jaurtiketa eta dultzaineroak, 11.30etan haur jolasak, 5etan marrazki lehiaketa, 6etan txokolatada, 6.30etan Lore Gazteak taldearen dantzaldia, 7etan San Frantziskon meza, 7.15etan sorginak eta 10etan Txinparta taldearekin dantzaldia.

KONTZERTUA
"SS 77" eta "Los Pichones" taldeen emanaldia. Gaueko 11etan. Aretxabaletako Gaztetxean.

DEBA GARAIOKO ESKOLEN ARTEKO ABESBATZEN VII. TOPAKETAK
Musakolako Polikiroldegian. Arratsaldeko 4.30etan.

BERTSO AFARI GAZTEA
AEDn, gaueko 9etan. Partehar-tzaileak: Amaia Telletxea, Kepa Intxausti, Estitxu Arozena eta Iratxe Ibarra.

24 IGANDEA

ZINEA
"Lo Que Queda del Día". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

HAUR ZINEA
"Peraustrina 2004". Amaia antzokian, arratsaldeko 5etan. Sarrera: 200 PTA.

IBILALDIA
"Deba Bailara Bizi Bizirik" taldeak antolatuta. Epelen zelako obrak egin diren ikusteko eta Etxezarreta inguruak bisitatzeko. Irteera goizeko 9.30etan, Seberotik.



ALTAMIRAKO JAIK
Zapatuan, apirilaren 23an. Ekintzak egun guztian zehar

MENDIKO IBILALDIAK
Kirol proiektuko ume eta gurasoentzat. Apirilaren 24an. Irteera goizeko 9etan Montterronetik. Iraupena 3 ordu. Ibilbidea: Montterron-S. Kristobal-Meatzterreka-Udala-Erguin eta Iturripe. Hamarretakoa udala auzoan egingo da, salda eta txorixo egosia banatuko dira. Antolatzaileak, Besaide Mendi Elkarte eta Arrasate Kirol Proiektua.

25 ASTELEHENA**ZINEA**

"Lo Que Queda del Día". 7etan eta 9.30etan.

KULTUR ASTEA

San Andres Herri Eskolan. Arratsaldeko 5.30etan bertso saioa eta antzerkia, erdi zikloko ikasleen gurasoentzat.

HITZALDI-ELKARRIZKETAK

Gaia: "Drogarik gabe bizi daiteke. Beste era batetara bizi daiteke". San Andres auzoko parrokiaren lokaletan, Dr. Bañez kaleko behean, arratsaldeko 7etan. Lizarra elkar-teak antolatuz. Gasteizko "Gizakia Helburu" taldean laguntza ematen duten gurasoek emango dute hitzaldia.

BATZARRA

Atzegi Kirol Elkartearen aurkezpena. Arratsaldeko 7etan, Monterroneko batzar aretoan.

26 ASTEARTEA**ZINEA**

"Lo Que Queda del Día". 7etan eta 9.30etan.

KULTUR ASTEA

San Andres Herri Eskola. Egun osoan zehar 8. mailakoek prestaturiko tailerrak egongo dira ikusgai.

AITA MENNiko KULTUR EKINTZAK

Dantzaldia "Eguzki" taldearekin. Arratsaldeko 4etan.

HITZALDI-ELKARRIZKETAK

Gaia: "Drogarik gabe bizi daiteke. Beste era batetara bizi daiteke". Monterron Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan. Lizarra elkar-teak antolatuz. Gasteizko "Gizakia Helburu" taldean laguntza ematen duten gurasoek emango dute hitzaldia.

MENDI IRTEERA

Turon De Neouviellera. Apirilaren 30etik maiatzaren 1era. Izenematea apirilak 25 eta 26an, arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara, Besaide-ren Egoitza. Prezioa, 6.000 PTA. Beharrezkoak: federatua egotea eta mendi eskiko materiala edukitzea. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta.

ALABITARA

Irteera, Leizargarateko aterpera. Besaide M.Eko Gazte Ekintzak antolatuta. Apirilaren 30etik maiatzaren 1era. Izenematea apirilaren 25, 26 eta 27an Besaideren egoitza, 7.30etatik 8.30etara.

27 ASTEAZKENA**KULTUR ASTEA**


San Andres Herri Eskolan. Arratsaldeko 5.30etan antzerkia, lehen zikloko hurren gurasoentzat.

AITA MENNiko KULTUR EKINTZAK

Iñaki Caballeroren magia emanaldia. Arratsaldeko 5etan, Ekintzen Aretoan.

BILERA INFORMATIBOA

Arrasateko Batxilergo Institutuan. Gaia: 1994-95 ikasturteko ikasketa eskaintzaren aurkezpena. Arratsaldeko 7etan, Institutoko Areto Nagusian.

**KIROL MATERIALA EUSKARAZ SORTZEKO BEKA**

Liburuak honako bi atal nagusi hauek izan beharko ditu: kirol entrenamenduen teoria eta praktika eta kirol ezberdinetarako aplikazioak. Bekaren diru-zenbatekoa 400.000 PTAkoa izango da. Lana egiteko 6 hilabeteko epea egongo da. Edozein izan daiteke bekaren eskegile. Interesatuak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura bidali eskabideak, maiatzaren 30a baino lehen. Argibide eta oinarriak Arrasate eta Bergarako udaletako Euskara eta Kirol Zerbitzuetan aurkituko dituzu.

28 OSTEGUNA**ZINEA**

"Leolo". Amaia antzokian. Gauero 9.30etan. Sarrera: 300 PTA, gazte txartelarekin, 250 PTA.

ZINE-FORUMA

"Tomates Verde Fritos". Famili eta gizarte hezketakarako zentruan. Arratsaldeko 4etan.

KULTUR ASTEA

San Andres Herri Eskolan. Goizeko 10etan Virginia Imaz ipuin kontalariaren emanaldia. Arratsaldeko 5.30etan Play Back jaialdia eta antzerkia goi zikloko ikasleen gurasoentzat.

KONTZERTUA

"Daniel Perez Trio" taldearen kontzertua. Aterpe kafetegian, gauero 9.30etan.

DEBA GARAIKO NESKEN FULBITO TXAPELKETA

14 urtetik gorako neskentzat. Jokalariak 7tik 10era, taldeko gehienez federatu bat. Izenematea apirilaren 30a baino lehen, AEDn edo herri bakoitzeko euskara elkarteetan.

BATZAR OROKORRA

Fagor Industrial taldearen batzar orokorra. Apirilaren 29an, Oñatiko Institutuan. Lehen deia 3etan eta bigarrena, 3.30etan.

ERAKUSKETAK

Arrasateko Margo Taldearen erakusketa. Harresi aretoan. Egunero, 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan, 12etatik ordu 2etara eta arratsaleko 6etatik 8etara. Ispilu tabernan Iñaki Bruñasen artelanak ikusgai, maiatzaren amaiera arte.



“Langabezi maila Euskadin %25ekoa da eta Arrasaten edo bailara honetan, %15ekoa. (...) Beste gauza bat kontutan eduki behar da, Arrasate eta Leintz bailara dela emakume tasa handiena lantegi munduan dagoena, Euskadi eta Estatuarekin konparatuz. (...) Egia esan, Euskal Herrian eta Estatuan oso gutxi ezagutzen da Arrasate Kooperatiba Taldearen mugimendua. Esango nuke adibidez Ameriketako gehiago ezagutzen dutela Arrasate deitutako kooperatibismoa, batez ere Unibertsitate mailan eta, Madrilera Unibertsitateetan baino. Ekonomia Fakultateetan, Ameriketako, asignatura bezala daukate kooperatibismoa sartuta eta Arrasatekoa ondo edo nahiko ondo aztertzen dute. (...)”

Egia esan, Arrasatek, beste herriekin konparatuz, aspektu horretan ere gauza on bat duela uste dut. ARRASATE PRESS eta ATB daude eta herri gehiengoak ikusten ditu eta nik esango nuke informazio handia daukagula, (...) era horretan nik esango nuke pribilegiatuak garela”.

Mikel Lezamizek


Autoenpleoari buruzko inbentarioa edukitzea eta hori inportantea eta ona dela esaterakoan, sinistu egin behar dugulako benetan enpresa bat errentablea egiteko, ez dela izugarritzako makinaria eduki beharra derrigorrezkoa, ez eta ez dakit zelako inbentario bat edukitzea ere. Inportanteena antolaketa da. (...)

Ez dugu pentsatu behar Arrasate paradisu bat denik. Arrasatek daukana da potentzialitate batzuk, inportanteak direnak eta aprobetxatzen jakin behar duguna. Aprobetxatu eta biderkatu ahal dugun neurrian. Eta hori izan behar da bereziki sinetsiz posible dela gure arbasoek egin duten eta guk zergatik ez dugu egin behar. Nik uste era berdinean egin dezakegula eta haiek eduki zituzten erronkak ez ziren gureak baino makalagoak izan”.

Xabier Zubizarretak

Zer ondorio atera duzue Permakulturari buruzko mintegitik?

Jendea oso interesatuta agertu da. Sarrera edo aurkezpeneko mintegia izan da, Euskal Herrian egiten zen lehena. Permakultura Australian sortutako diseinu sistema bat da, ekosistemak diseinatzeako sistema bat da, ekosistema naturalak berreraikitzea edo baita giza-taldeentzat, sostenibleak diren inguruneak sortzea. Edozein errendimendu izan daiteke, janaria, energia edo bestelako materialak. Ez da arlo bakar bat hartzen duen teknika, diziplina askoren arteko lotura egiten duena baizik, nekazaritza, ekologia, hirigintza, arkitektura eta beste arlo askotan aplikatu daiteke. Gure asmoa orain jakintza eta formakuntza hau Euskal Herrira ekartzea da, jendeak ezagutu eta nahi duen moduan aplikatu dezan. Izan ere, ez da kanpotik datorren ideologia bat, diseinuko oinarriak dira, hemengo tradizioekin uztartu daitekeena eta hemengo beharretara egokitu daitekeena. Hemengo jendeak formazioa hartzen badu, ez da kanpoko informazio eta adituen mende egongo.



Steve Carr

Permakulturako irakaslea

Uztailerako formazioko ikastaroa antolatu nahi dugu, permakulturako diseinatzaile izan nahi dutenentzat, euren proiektuak aurrera eramateko prestakuntza gehiago izan nahi dutenentzat. Edozeinentzat izango da printzipioz, ez dugu titulazio edo prestakuntza berezirik eskatzen. Jakina, beti laguntzen du zientzietan edo natur zientzietan arloan ezagupen batzuk izateak, baina ez da ezinbestekoa.

Ikastaroa 20 ikasletara mugatu beharra dugu, baina hasieran behintzat edozeinentzat da, bi asteko ikastaroa eta lan apur bat egiteko prest egon ezker behintzat. Interesik dutenek Eskoritzako Museo Eskolara jo dezakete edo 714688 telefonora hots egin.



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerías, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novецento eskusiban Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie



DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

Edurra

Joan zen ostiralean, apirilaren 15ean, edurra egin zuen. Udaberriari aspalditxo sartu ginen arren, tenperaturak asko jeitsi ziren eta ostiral goizean edurraren bisita izan genuen. Ondorioz, Kanpanzar mendatea, adibidez, goizeko lehen orduetan kamioientzat itxita egon zen. Zorionez, horrek ez zuen asko iraun eta eguerdialdera eguzkia atera zen.

**Intsumisoen aldeko protesta ekintzak**

Iruñean gose greba mugagabeen dauden 60 preso intsumisoei elkartasuna adierazteko, Arrasateko Talde Antimilitaristak ekintza batzuk burutu zituen zapatu eguerdian. Goizeko 10.30etan CC.OOen lokalean bilera egin zuten eta eguerdian Seberora hurbildu ziren, protesta ekintzan alderdi sozialistaren egoitzara joateko. Ondoren, sozialisten egoitzaren balkoian kateatu egin ziren bost lagun, "alderdi honek intsumiso eta objetoreenganako duen politika salatzeke". Ertzaintza etorri, balkoietan zeudenei kateak moztu eta irteteko agindua eman zieten amaitu zen protesta ekintza.

Gurutze Gorria

Deba Garaiko Gurutze Gorriak martxoan zehar burututako zerbitzuen berri eman du. Besteak beste, zortzi etxeko istriputan, oinezkoen bederatzizko istriputan eta 17 trafikoko istriputan eskeini zuten beren laguntza.

Atxilotua

Astearte goizean ertzaintzak Félix. A.L. arrasatearra atxilotu zuen, alkoholaren eraginpean gidatzeagatik eta aurrez Erguin kalean izan zuen istripuagatik. Istripua goizeko 8.50etan gertatu zen, bi kotxek elkar jotutenean. Atxilotuak

horietako auto bat gidatzen zuen eta azterketa egin ostean, odolean 2,11 gr/litroko alkohol tasa zuela frogatu zen.

Antzerkirik ez

Zapatuan In Fraganti taldeak ez zuen "Hala ba zan ez ba zan..." obra antzeztu. Olatz Beobide,

taldeko aktoresetariko bat gaisotu egin zelako, ezin izan ziren Amaia antzokira hurbildu. Dagoeneko udaletxeaz beste data bat finkatzekotan dabil antzerki taldea eta oraindik erabaki ez den arren, irailean antzeztuko dutela uste da. Anekdotak bezela, antzeslana ikustera joan zen norbaitek, gaisoaldiarena obraren

txantxa bat zela pentsatu zuela.

Diru eskean

Azkenaldian, bosniarrak edo kroaziarrak direla esanez, ezezagun batzuk diru eskean hasi dira Arrasate eta inguruko herrietan. Oraingoz ez da argitu pertsona horiek zeintzuk diren, baina emakume bat Eskoriatzan dauden bosniarretariko bat dela esanez eskean dabilenez, Eskoriatzako bosniarrek ekintza hori salatu egin dute. Azken horiek eta bosniarrei laguntzeko dagoen batzordeak azaldu duenez, taldeko inor ez da eskean hasi eta diru behar egonez gero, ohizko eran berri emango dutela adierazi nahi izan dute.

JAIOZAK

- Iker Zuñiga Mongelos. Apirilaren 17an.

HILDAKOAK

- Mkaela Orue Etxagibel. Apirilaren 13an. 82 urte.
- Beatriz Barrutia Larrañaga. 15ean. 87 urte.
- Josefa Murgiondo Gereño. 16an. 83 urte.
- Martin Garcia Garcia. 18an. 61 urte.
- Miguel Elorriaga Iradi. 18an. 83 urte.



ARRASATEKO UDALA

LANPOSTUAK

- Igerilekurako **MONITOREA** eta **SOKORRISTA**
- Musakolako Kiroldagiko **ATEZAIN-ARROPAZAINA**

Lanpostu hauetan sortzen diren aldizkako beharrak betetzeko (udaldian, enplegatuen bajak direnean, e.a.), bi lan-poltsa sortzea erabaki da.

Hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri-arauak Udaletxean jaso daitezke. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 6an, eguerdiko 12etan amaituko da.



JOXE JABIER IÑIGO*

Hamaika datu alararako ala itxaropenerako?

Orain dela gutxi eman dira argitara 1991ko zentsuko euskarari buruzko datuak. Honezkerok ezaguna denez, hamar urtetan Euskal Autonomi Elkartearen 95.000 euskaldun gehiago dagoela nabarmendu da, %22ko igoera, beraz. Arrasaten, berriz, 2.378 euskaldun gehiago dago 1981ean baino, ia %26ko igoera.

Interesgarria da, nolana-
hi ere, hamar urte hauek bi zatitan banatzea, bost urtean behin jasotzen baitira horrelako datuak eta, horri esker, 1981-86 epea 1986-91 epearekin gonbara dezakegu:

EUSKALDUNEN HAZKUNTZA EHUNEKOTAN	1981 - 86		1986 - 91		
	Euskal Autonomi Elkartea	Arrasate	%14,18	%9,14	%6,88

Ikus daitekeenez, bai EA Eren osotasunean, bai Arrasaten ere, euskaldunen kopurua hazi egin da bi epeetan, 81-86 eta 86-91. Baina epe batetik bestera, EA En

hazkuntza erritmoa jaitsi egin da eta asko gainera (%51,53), eta Arrasaten ordea, nabarmen igo (%66,27).

Datuon arabera 81-86 epean euskarak motelako egin zuen aurrera Arrasaten EA Ean baino. 86-91n berriz, herri gehienetan ez bezala, izugarriko aurrerakada gertatu da hemen; horren arrazoiak begien bistakoak dira guztiontzat, noski, eta ezin luza gaitezke hemen.

Baina erreferentzia gehiago izatearren, zer gertatu da gainerako herrietan? Hurrengo taula osatzeko alde batera utzi ditugu 10.000 biz-

tanletik beherako herriak eta oso erdaldunak (euskaldunen portzentaia %10etik beherakoa dutenak), horietan aldaketarik txikiak ere izugarri aldatzen dituelako por-

tzentziak. Era berean, ez ditugu aintzat hartu 81-86 epean euskara galdu zuten herriak edo epe batean edo besteak oso oso gutxi euskaldundu direnak (Elgoibar eta Bermeo esate baterako). Hori guztia kontutan izanik, 81-86 epea 86-91rekin alderatuz gero, euskalduntze erritmoa azkartu duten bi herri besterik ez daude EA En:

EUSKALDUNTZE ERRITMOA AZKARTU DUTEN HERRIAK	
81 - 86 eta 86 - 91 epeen arteko alderaketa	
Arrasate	%66,27
Zumarraga	%40,62

Benetan datu positiboak Arrasatekoak. Izan ere, askoz ere herri handiagoa da Zumarraga baino, eta horrelakoetan zailagoa izaten da hain hazkuntza erritmo handia lortzea.

Guztira euskalduntze erritmoa azkartu duten 59 herri besterik ez dago EA En. Gainerako herri gehienek (155ek) euskalduntze erritmoa moteldu egin dute: batzuk (89 herri) euskara berreskuratzen segitzen dute, baina gero eta motelako; beste batzuk euskara galtzen ere ari dira: 66 herri! gehienak oso herri euskaldunak.

Berri onak arrasatearrentzat, alarregarriak gainerakoentzat, baina itxaropenttsuak betiere, aurrera zein bidetatik jo daitekeen argi eta garbi adierazte digutelako.

EKBko IDAZKARI TEKNIKOAK

USTEAK USTE

ERRENTA AITORPENA

Urtero bezala heldu da errentaren aitorpen dantsua egiteko garaia. Eta gehienok, zintzo-zintzo, bakoitzaren egiten saiatuko gara, zeren eta jakin badakigu ordaintzen dugun diru hori, ordaintzea tokatu bazaigu behintzat, denontzat onuragarri izango diren hainbat proiektu aurrera ateratzeko erabiliko dela, hala nola errepideak egiteko (nahi ez ditugunak ere). Ikusi besterik ez dago egun hauetan telebistan, ez dakit zein katetan, iragarki batek dioena, hau da, iruzur txikiak egiten baduzu ere hainbat metro gutxiago izango dira errepideren baten. Hori iruzur txikiak eginez gero, zer izango da beste batzuk (rubioek eta beltzarrenek) egiten duten iruzurrekin, dagoeneko, penintsula osoa errepidez josita egon beharko litzateke. Baina horiek ez dute zer ikusirik gurekin, horrela, bada, ez izan kontutan eta zure errentaren aitorpena egin beti bezala, zintzo-zintzo.

Egia da, badaudela hor nonbait, fondo erresebatuak deritzanak ere, zertan erabiltzen diren esango ez digutenak, ez zertan erabiltzen diren, ez eta nondik atera diren ere, errentaren aitorpena egitean ordaintzea tokatzen zaigun diru horretatik akaso? Tira, ez egin kasurik, ziur aski behar beharrezkoak izango dira fondo erresebatu horiek gu guztiok babesteko. Horrela bada, eta esan bezala, ez izan kontutan besteen iruzur izugarriak, eta denon dirua zuzen eta zilegi erabiliko den ziurtasunez, egin ezazu, zintzo-zintzo, zure errentaren aitorpena.

AMAI JAUREGI-ARRABURU

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE


Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen errepuzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



Aurrerantzean, buzoien bidez, kaletarren zerbitzu bera izango dute baserritarrek.

Baserritarrek buzoi berriak, etxetik gertuago

Baserriek posta zerbitzu berria dute aste honetan hasita, Udaleko Auzoetako Batzordeak egindako gestioen bidez, Correos-ekin adostasunera iritsi eta baserrietarako buzoiak jarri ondoren. Egunero postaren banaketa egingo da baserrietara ere, aspalditik baserritarrek zuten kexu bati erantzunez. Izan ere, baserritarrek Correoseko bulegoetan postakutxa ordaindu izan dute orain arte, beste edozein herritarrek bezala gutunak etxean jasotzeko aukerarik gabe.

Correos-ekin, Arartekoarekin eta ondoren, postarena Estatuko zerbitzua denez, Defensor del Pueblo delakoarekin harremanetan egon ondoren, erdibideko konponbidea aurkitu dute: gutunak ez zaizkie etxe etxeraino eramango, baina baserrietarako bidean buzoiak jarri dira, eta egunero eramango da horietara posta. Bedoñan auzoalkatetzaren ondoan jarri dira kutxak, baina gainerako auzoetan baserri multzoka kalean edo bidagurutzeetan.

Baserri gehienek aurtengorako postaku-

txa ordainduta dutenez, hori ere erabiltzen jarraituko dute zerbitzuren batzutarako.

Aste honetako Gobernu Batzordean gai honen berri eman da, eta Arrasateko herritarrei banatzen zaie edozein informazio (kultur-ekintza, kirol-ekintza, lehiaketa, erakusketak, hitzaldi, ikastaro, ohar e.a.) aurrerantzean baserritarrei ere helaraztea eskatu zaie Udal zerbitzuei eta Mankomunitateari. Gauza bera lortu nahi da herriko elkarte eta taldeek egiten dituzten buzoneoekin ere, "baserrietako mondrauetarrak (mila inguru) orain arte bezala bazterturik gera ez daitezen eta herriko gauzak denontzat izan daitezen" Isabel Zuazubiskar batzordeburuak adierazi duenez.

Auzoetako Batzordeak aurrera begira dituen lanen artean, Arrasate Telebista auzo guztietan ikus dadin bitartekoak jartzea (oraindik Gesalibar, Zaldibar eta Mietzerrekan ez da ikusten) eta baserrietarako porlanezko bideetan egin beharreko inbertsioak aipa daitezke.

Fagor Hispasat bidez

Fagor Elektrodomesticos-ek bere produktuen aurkezpenarako urteroko ekitaldia Hispasat Satellitearen bidez emitituko du, apirilaren 26, 27 eta 28an, Estatuko 30 hiritara zuzenean. Emisioa ordubeteko programa batek osatuko du eta gaueko 9etan egingo da, Arrasateko egoitza zuzenean. Bertan, Iñaki Belategi gerenteak, Fabián Bilbao gerente-komertzialak eta Jabier Sotil-ek, Konfort dibisioko zuzendariak hartuko dute parte, Andres Aberasturi kazetariarekin batera. Besteak beste, merkatuaren egoera, nazioarteko konpetentzia eta markaren estrategiaz hitz egingo da. Programa hori jarraitzen estatu guztiko Fagor banatzaileak izango dira eta konexio interaktiboa lortuko da.

Ekimenari "Orbita Fagor" jarri zaio izena, eta aintzindaria da enpresen harreman komertzialetan bide berriak urratzen. 7.000 metrotara dagoen satelite batek egingo du posible komunikazioa.

Jarrairi ezetza

Arrasateko Jarrai taldeari, taldearen 15. urteurrena ospatzeko eskatu zuen dirulaguntza ukatzea erabaki zuen udalak asteleheneko gobernu batzordean. Alderdi politiko baten adarra dela argudiatuz eman zaio ezetza eskariari.

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETAKO
Tfnoa: 79 80 90

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETAKO

JOSU

**TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA**

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



1992ko abenduan hasi ziren Epele-Kanpanzar errepidea egiten.

Atzerapena Epele-Kanpanzar errepidean

Epele-Kanpanzar errepideko obrak maiztaren amaieran bukatuko dira, Luis Villanuevak, obretako buruak ARRASATE PRESSI azaldu dionez. Maiatzaren lehen asterako errepidea inauguratuko zela uste bazen ere, eguraldi txarraren erruz errepidea bukatzea atzeratu egin behar izan dute. Aurtengo neguko egun askotan eguraldi txarra egin du, eta apirilean, gainera, euri asko egin duenez, Mariezkurrena enpresako langileek lane-gun asko galdu dituzte, azken momentuko lanak eurtan ezin baitira egin. Hain zuzen

ere, kaminoan galipota bota behar dute eta euria egiten duenean ezin da lan hori egin. Beraz, hasiera batetan joan den urteko bukararako errepidea prest egongo zela uste bazen ere, obra horiek bost hilabetetako atzerapena izango dute.

Kanpanzarretik Epelera bitarteko errepide berria 5 Kmtakoa da eta 3 karril izango ditu, bat beherantz joango diren autoentzat eta beste biak, gorantz joango direnentzat; honetaz gain, alde batetan metro t'erdi eta bestean metro erdiko arzenak ere baditu.

Langileak greban

Astelehenaz geroztik "San Juan De Dios" hospitale psikiatrikoaren garbitasunaz arduratzen diren langileak greban daude. Langile hauek, guztira 27 emakume, COMPASA enpresaren bidez kontratatutak daude. Arazo nagusia, aintzinasuna dela eta jasotzen den diru kopuruan dago. Enpresak, bost urte lanean pasatakoan ordaindu nahi die diru kopuru hori eta langileek, berriz, hiru urtero nahi dute. Langileak lan egunetan hospitalera hurbiltzen dira eta goizeko 8etatik 11etara kontzentrazioak egiten dituzte.

Aparkalekurako langile ezinduak

Lau Bideko lurrazpiko aparkaleku publikoa zaindu eta kontrolatzeko, pertsona ezinduak kontratatuko ditu udalak. Lau Bideko aparkalekuan frogatzea bezala, txandakako aparkaleku sistema ezarriko da, hau da, gehienez ordu batez aparkatuta egoteko aukera izango dute autoek, 50 PTaren truke. Horregatik, lan hori egiteko langileak kontratatuko ditu udalak.

18.000
IRAKURLETIK
GORA



Asteartean enkartelada berezia egin zuten presoek senideek.

Manifestaldirako deia Arrasateko senideak-ek

Arrasateko Senideak-ek konzentrazio berezia egin du aste honetan, martitzeneko egiten diren enkartelada isilei zentzu berezia eman nahirik, herriko 12 presoek oroimenez. Horrekin batera, larunbat honetan Donostian presoek dispersioaren aurka eta Euskal Herrira ekartzearen alde egingo den manifestaldirako deia egiteko prentsaurrekoa eman zuten ostegunean.

Arrasateko Senideak-ek prentsaurrekoan adierazi zuenez, azken hiru urte hauetan kontaktu asko izan da hainbat erakunde eta botereko gunerekin, eta harrera ona egin bazaie ere, ez da presoek egoera hobetzeko

eta dispersioaren aurkako urratsik eman. "Presoak Euskadira ekartzeari euren oinarritzko eskubideak bermatzea" irizten dio Senideak-ek.

Bestalde, asteazkenean lau preso mondrauetarrek epaiketa izan zuten. Jesus Mari Zabarte, Pako Robles, Enrike Letona eta Jon Agirrerri 1980an Jose Artero Aquiles erahit izana leporatzen zaie eta 87 urteko zigorra eskatzen du fiskalak. Presoek epaimahaia ez errekonozitzeko asmoa zuten, eta epaileak familiarrekoak kapora bidali ondoren epailetuek ere utzi egin zuten aretoa eta bertan behera geratu zen epaiketa.

Federatuak eta abonatuak

Arrasate Saskibaloi, Arrasate Eskubaloi, Rugby taldea, Mondra Futbol taldea eta Futbol Sala taldeek eskuitz bat bidali dute udaletxera, Aukeari ordaindu behar dioten diru kopurua ordaintzearekin ados ez daudela adieraziz. Oraintsu arte, federatuak direla esanez, talde horietako kirolariak ezer ordaindu gabe sartu izan dira Aukearen instalazioetan. Baina joan zen urtean ez ohizko batzordean, talde horiek diru kopuru bat ordaindu behar zutela erabaki zuten udalak eta talde horiek. Horregatik, orain hitzartutakoa praktikan jar dezatela eskatzen zaie. Oraindik erabakirik hartu ez den arren, udalak talde horiekin arazoa eztabaidatuko du eta behar bada erdibideko formularen bat negoziatuko lukete. Aukearen defizita oso handia da eta horregatik, abonatuak bezala, diru kopururen bat ordaintzeko eskatzen zaie federatuei. Euren denboraldia urte osokoa ez delako, ez dute ordaindu nahi kirol taldeek.

**AZALDU ZURE ESKAINTZA!
BIDALI ZURE MEZUA!
ZABALDU ZURE IZENA!
ERAKUTSI NOR ZAREN!**

ARRASATE PRESS

PUBLIZITATEA: 77 08 15



Ramon Ramilaren Dick txakurrari, bi tumor kendu dizkiote. Beharba da baretik bi tumor kentzea ez da ez ohizko gauza, baina sei kilokoak izatea bai. Dickek 18 kilo pisatzen ditu eta kendutako bi tumorren batez besteko pisua 6 kilokoa da. Tumorrekin 24 kilo pisatzen zuen seterrak. Orain egoera onean dago.



Deba Garaiko arziprestaldeko osasun pastoraltzako pastoralgileek egun osoko bilera egin zuten zapatuan, Azatzako Abadetxean.

Bilerak goiza eta arratsaldea iraun zuen arren, ordu biak aldera bazkaltzeko atsedentxoa hartu zuten.

AED elkarteak, Erantzunkizun Zibileko aseguruia euskara hutszez egin berri du. Aurora Polar aseguru etxeak eta zehazkiago, **Joseba Otero** izan da, euskeratu eta aseguruia egin duena. Aurrerantzean jendeak eskatzen badu, euskaraz egiteko asmoa daukate.



lurrindegia **perfumeria**

ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99



Muxibar azpikua baserria, mugarritten dagoena, erdi apurtatu dagoela konturatuko zineten. Asteazkenean teilatua botatzen hasi ziren, eta osorik botatzeko

asmoa dago. Baserria Pako Bengoaren familiarena da. Paco eta bere emaztea Pepita, 67. urte arte bertan bizi izan ziren. Orain kalean bizi dira.

IZEN PROPIOAK

● Jasone Mendizabal,

25 urte, ARKOko komertziala izango da. Jasone arrasatearra da eta enpresa zientzietan lizentziatua. Orain arte Cim eta AEK-ko irakaslea izan da.

● Pili Muñagorrik, 26


urte, Arrasaten bizi den hernaniarrak, Sitges-en egin berri diren Espainako Aerobic txapelketan bigarren postua lortu du. Pilik, turismo ikasi zuen eta orain psikomotrizitate klaseak ematen ditu San Viator Txikin.

● **A. Espinosa, I. Gonzalez, R. Romero, J.I Jimeno del Hoyo eta F. Solano**, hauek dira PSOE-EE egin zuen II. kongresura, joan diren Arrasateko delegatuak.



Sor Isabel Elortzak, 80 urteko monja arrasatearrak, urrezko eztaiak bete ditu Mertzederia. 50 urteak apirilaren 13an bete zituen eta pasa den asteburuan Sor Isabelek 50 familiarartekorekin primeran ospatu zuen. Zapatuan, lehenengo meza izan zuten La merced elizan, eta ostean bazkari gozoa dastatu zuten. Zorionak!!

IBARRA Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ITSASKI


ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21



**UNITED COLORS
OF BENETTON**

**ZURE UDABERRIKO MODA
IZUGARRIZKO PREZIOETAN**

Maalako Errabala, 13 ("Okendo Kirolak" en ondoan) Tnoa. 79 50 78 ARRASATE

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Azken txanpan buru belarri.

Zadibarko txapelketa pil-pilean dago. Taldeak azken ahaleginak egiten dabilta final four-ean, hau da, hurrengo fasean sailkatzeko. Talde batzutan dena erabakita egon arren, B eta D taldeetan azken jardunaldiarte itxaron beharra dago. B eta D multzoetan, aurreneko postuetan dauden taldeak, azken partiduan lortzen duten emaitzaren arabera, sailkatu egingo dira edo ez. Adi egon beharko dugu, beraz. Bestalde, maiatzaren

1ean, final four-a hasiko da. Lau partidu bakarrik jokatuko dira, gero semifinala eta maiatzaren 28-an finala. Final four-eko neurketak, zapatu eta domeketan, goizeko 11etan eta 12etan jokatuko dira. Uribe Auzoko txapelketari dagokionez, arazorik gabe doa aurrera. Joan zen astean inpugnazio bat egon zen baina datu guztiak egiaztatu ostean, antolatzaileek bertan behera uztea, erabaki zuten.

URRIN
EDARITEGIA

Etxeko janari bereziak

Uribarri Etorbidea, 22 Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE

ARRASATE
PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15

Zaldibarko Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
PEPELUS	6	5	0	1	23	13	10
ARLUTZ	6	4	1	1	27	20	9
LOS HEREDIA	6	3	0	3	23	23	6
POTROAL LORA	6	1	4	1	19	19	6
NABARROS	6	2	1	3	23	22	5
FRANCISCANERR	6	2	1	3	29	28	5
REVOLUTION ROCK	6	2	0	4	22	30	4
ZOTZ	6	1	1	4	22	3	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	6	5	0	1	34	20	10
MIKELOS	6	3	2	1	23	19	8
ZULUS	6	4	0	2	25	15	8
ANBOTOSTE K. T	6	3	0	3	17	19	6
BUKANAK	6	3	0	3	24	23	6
UGLYS TXINATO	6	2	1	3	30	32	5
JEY JULIWER	6	1	1	4	17	22	3
SOKOAKOAK	6	0	2	4	11	31	2

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	6	6	0	0	34	17	12
IRATI STS	6	5	0	1	27	19	10
ARR KIROLAK	6	4	0	2	24	19	8
TOVARIXTX	6	3	0	3	24	28	6
SUM. UGARTE	6	3	0	3	31	19	6
MOTZ	6	2	0	4	24	28	4
KAKAJAURI	6	0	1	5	16	51	1
TRONKOTEAK	6	0	1	5	16	45	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	6	5	1	0	36	13	11
ZULOAK	6	4	1	1	20	19	9
LEINTZ GARAGAR.	6	4	0	2	27	14	8
TUTIFRUTI	6	2	2	2	17	18	6
CARBUROS	6	2	2	2	18	17	6
DANOK LAGUN	6	2	0	4	15	22	4
ARR. KRISTALDEGIA	6	1	1	4	20	30	3
AC SURCOS	6	0	1	5	20	40	1

Uribe auzoa Txapelketa

A taldea	
Corinto Taberna	10
Lo + X	8
Ola Tailerrak	8
Semen Up	7
Borrocl'n roll	6
Elisabeth	3
Kabiru	3
Altza Porru	3
Lore gazteak	2
Trotabares	0
No comment	0

B taldea	
Borisca	9
Nuevo taberna	8
Solano 7 mares	7
Yomai	6
Ganbelas	5
Berango sukal.	5
Ke Oxtias	3
Sorgol	3
Lokis	2
Bayer de lenitz	2
Atxanta ke te....	0

D taldea	
Stocker's	9
Lautherbrunnen	8
Equus	8
Hirei	6
Belo eta txapi	4
Estrella floja	4
Top hits	3
Los insociables	3
Mobi Arenaza	2
Ezkinako hontzak	2
Etxe mobiliario	1

E taldea	
Los Dimy	10
Fancy bois	8
Txeyenex	7
Beti gazte	7
Kirten tropel	5
Jo ta Akabau	5
Exca. lete	4
Los Dalton	3
Los Garimbas	2
Auf dem koffer	0
Borrocl'n prom	0



PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



Udalaitz, S. A.



ADI!
2. Eskuko
autoak



Ford Sierra 4x4 SS-4264-AD
Citroen AX GTS SS-3583-AK
GOLF GTI SS-6034-W
Renault 19 AA SS-6074-AF

Musakola auzoa, z/g
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25



Datorren asteburuan, final four-ean sailkatzeko erabakiorrak izango diren bi neurketa garrantzitsu izango ditugu: B taldeko Fosforos-zulus eta D taldeko Zuloak - Trikiti. Azken neurketa hori zuloak-ek irabaziko balu, D taldean Trikiti eta Zuloak taldeak sailkatuko lirake.

BELARRIRA

◆ **Pepelusen ordua.** Partidu mordo bat zeramatzan Pepelus taldeak porrota ezagutu barik. Baina joan zen asteko jardunaldian, galtzea zer den jakin zuen: 5 eta 0 galdu zuen Nabarros taldearen kontra. Beti ezin izaten da irabazi!

◆ **Uribe auzoa txapelketan.** Estrella Floja eta Los Insociales taldeek jokatu zuten partiduan, fundamentu bako inpuñazioa egon zen. Los Insociales taldekoak kexatu egin ziren, Estrella Floja taldean jokatu zuten jokalaria bi listetan ez zeudelako. Antolatzaileek listak ikusi zituztenean, argi geratu zen hori ez zela egia. Bide batez, Los Insociales taldeak 5 eta 2 galdu zuela esan beharra dago. Horrek eragina izan ote du?

◆ **Datuak datu.** Zaldibarko txapelketan pasa den jardunaldian guztira 133 gol sartu ziren. Gol gehien sartu zuen taldea Trikiti izan zen 13 golekin, gutxien, berriz, Pepelus taldeak; ez zuen golik sartu.

EMAITZAK ZALDIBAR

A TALDEA

Los Heredia 3 - Zotz 5
Potroak lorategi 3 - Revolution rock 2
Arlutz 7 - Franciscaner 3
Nabarros 5 - Pepelus 0

B TALDEA

Zulus 4 - Anbotoste k t 1
Fosforos 8 - Sokoakoak 2
Mikelos 3 - Bukanak 6
Uglys Txinato 7 - Jey juliwer 6

C TALDEA

Argi Ibili 11 - tronkoteak 2
Sum Ugarte 1 - Arrasate kirolak 2
Tovarixt 6 - Motz 3
Irati STS 4 - Kakajauri 2

D TALDEA

Trikiti 13 - AC surcos 4
Zuloak 5 - Arrasate kristaldegia 3
Danok lagun 1 - Lenitz garagardotegia 3
Tuttifruiti 4 - Carbueros 3

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

Trotabares 2 - Ioregazteak 3
Ola tailerrak 9 - No comment 1
Corinto Taberna 8 - Elisabeth 3
Kabiru 5 - Altza Porru 5
Borrock'n roll 3 - Lo + X 4

B TALDEA

Bodisca 2 - Ganbelas 1
Atxanta ke te... 0 - Yomai 5
Berango sukai. 3 - Bayer de lenitz 1
Ke oxtias 5 - Lokis 2
Sorgol 1 - Nuevo taberna 3

D TALDEA

Equs 7 - Top Hits 4
Estrella floja 5 - los insociales 2
Lautherbrunnen 3 - Stocker's 5
Belo eta txapi 2 - Hirei 5
Ezkiñako hontzak 1 - Mobiliario Areneza 7

E TALDEA

Los Dimy 8 - Los dalton 1
Fancy bois 7 - Borrosck'n roll prom 2
Jo ta Akabau 4 - Txeyenex 4
Beti gazte 8 - Auf dem koffer 1
Los garimbas 1 - Exca. lete 6



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ASTEBURU HONETAN

ZALDIBAR

Larunbata 23

Zaldibar

- 08.50 Irati STS - Motz
- 10.00 Argi ibili - Suministros Ugarte
- 11.00 Arrasate kristaldegia - surcos
- 12.00 Mikelao - Jey Juliwer
- 13.00 Arlutz - Pepelus
- 14.00 Tovarixtx - kakajauri
- 15.00 Los Heredia - Pötroak Lorategi
- 16.00 Arrasate Kirolak - Tronkoteak
- 17.00 Sokoakoak - Anbotoste
- 18.00 Uglys Txinato - Bukanak
- 19.00 Nabarros - Franciscaner

Igandea 24

Zaldibar

- 08.50 Danok lagun - Carbueros
- 10.00 Revolution Rock - Zotz
- 11.00 Trikiti - Zuloak
- 12.00 Zulus - Fosforos
- 13.00 Tutifruiti - Lenitz Garagardotegia

URIBE AUZOA

Larunbata 23

Iturripe A

- 09.00 Ola Tailerrak - Elisabeth
- 10.00 Top Hits - Hirei
- 13.00 Gabelas - Lokis
- 14.00 Estrella floja - Stocker's
- 15.00 Los Dimy - Borrock'n roll promesas
- 16.00 Solano 7 Mares - Nuevo taberna
- 17.00 Los Dalton - Auf dem Koffer
- 18.00 Trotabares - No comment
- 19.00 Equus - Los Insociales

Iturripe B

- 09.00 Lore Gazteak - Altza Porru
- 10.00 Ezkiñako Hontzak - Belo eta Txapi
- 11.00 Semen u'p - Lo + X
- 12.00 Sorgol - Ke Oxtias
- 13.00 Borrock'n roll - Kabiru
- 14.00 Bodisca - Yomai
- 15.00 Los Garimbas - Beti Gazte
- 16.00 Atxanta ke Te merece - Bayer de Lenitz
- 17.00 Kirten tropel - Excavaciones Lete
- 18.00 Etxe mobiliario - Mobiliario Arenaza
- 19.00 Fancy bois - Txeyenex



Final Four-a gero eta gertuago

Jardunaldi bat besterik ez da falta, Zaldibarko bigarren fasea bukatzeko, eta, dagoeneko, hainbat talde sailkatuta daude hurrengo faserako. Talde bakoitzetik bi lehenak bakarrik sailkatzen direla gogoratuko dizuegu. Honela bada, A taldean Pepelus eta Arlutz-ek hurrengo faserako txartela eskuratuta daukate. Eta C taldeko Argi Ibili eta Irati STS taldeek, beste horrenbeste. Arazoak B eta D taldeetan dauzkagu. B taldean, hiru talde daude sailkatzeko aukeraz: Fosforos, Mikelos eta Zulus. Fosforosek

Zulusen kontra jokatu behar du, eta Zulusek irabaziko balu eta Mikelosek ere bai, biak sailkatuko lirateke. Baina, Fosforosek puntu bakarra lortu ezker berriz, bera sailkatu eta bigarren postua beste bi taldeen artean egongo litzateke. D taldean, Trikiti zurrak da. Eta Trikitik Zuloak taldearekin neurtu behar ditu indarrak; bigarren honek irabaziko balu, biak sailkatuko lirateke. Baina horrela izango ez balitz, Leintz Garagardotegiak, sailkatzeko aukera izango luke.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Atxondoko trenbideren bidea ere ainezko eta txirrindularientzat berreskuratu zuten.

40 elkarte Trenbidea eskatuz

Maria Agirre

Trenbidea notizia bihurtu da. Garai batean bailarako aurrerapenaren adierazgarri izan zenak, protagonismoa hartu du. Herriko hainbat lagun eta elkarteren ekimenez bide zaharra berreskura-

tu nahi da, baina oraingoan, oinezko eta txirrindularientzako soilik. Laburtuz, trenbidea berriz ere aurrerapenaren ispilu izan daiteke.

Urtetan Gasteiz eta Maltzaga bitartean trenak gora eta behera ibili ziren moduan,

orain, aspalditik alboratuta dagoen bide horretan, oinezko eta txirrindulariak jarri nahi dira joan-etorrian. Bailarako herritar, talde eta elkarte desberdinen ekimenez, trenbide zaharra oinezko eta txirrindularientzat berreskuratzearen aldeko proiektua plazaratu da.


IGPetan AURKEZTU

Trenbidea berreskuratzearen aldeko proiektua, lehenengo aldiz IGPetan aurkeztu zen. Saihesbidearen eraikuntzarako trenbide zaharrean oinezkoentzat zegoen bide zati bat jan zela gogoratuz eta antzekoa egin berri den Kanpazarrerako bidean egin dela kontutan izanda, hainbat herritar, konklusio batetara heldu ziren: inguruan errepideak egin diren bakoitzean, oinezko eta txirrindularientzako zeuden bideak hondatuz egin direla. Horregatik, proiektua moldatu eta IGPetan aurkeztu zuten euren eskaria ere kontutan izan zedin. Txostenaren helburua ez da Maltzaga-Urbina ardatzean zelako errepide egin behar den eztabaidatzea, pasealekuak eta bizikletaz ibiltzeko bideak sortu eta eustea eskatzen dute. Eta bide batez, proiektu konkretua aurkeztu dute: trenbide zaharra berreskuratzea.

Ideia bultzatzaileek adierazi digutenez, IGPetan txostenak izugarriko arrakasta izan du ulerterreza delako eta beste txostenak azaldu dituzten taldeek ere begionez ikusi dute proiektua.

ONURAK

Trenbidea helburu horretarako berreskuratzeak gure probetxurako onura ugari ekarriko litzukeela argi eta garbi ikusten dute proiektu honen "gurasoek". Euren ustez bizi kalitatea hobetuko litzateke, lanera nahiz eskolara oinez edo bizikletaz joatea ahalbidetuko luke, turismoa ere bultzatuko litzateke eta, nola ez, erabat osasungarria izango litzateke. Azken ideia horren alde honela dio Eukeni Olabarrieta medikuak proiektuaren barne aurkeztu zuen txostenean: "administrazioak osasuna sustatzeaz hitz egiten du, bizi kalitatea hobetzeaz, baina praktikan osasun-zentru asistentzial gehiago sortzera mugatzen dira...baina



Astelehenean eman zuten prentsaurrekoan, proiektua aurkeztu zuten.

ezer gutxi egiten da osasuna bera sustatzeko." Honakoa ere gaineratzen du medikuak: "kirolak ondorio asko eta onak ditu organismoan, baina gainera, eragin nabarmen eta onuragarria du bizieran. Baina ez da nahikoa kirola ona dela esatea, bitartekoak eta baliabideak jarri behar dira jendeak egin dezan, eta aire zabalean baldin bada, are hobeto." Baina onura guzti horiekin batera, bide segurua edukitzeko dagoen beharra ere azpimarratzen dute. Izan ere, jendeak arriskurik gabeko tokietan egin nahi du kirola; auto, motor eta kamioien beldur izan gabe, segurtasunez eta biktimarik gabe. Nola ez, ideia honekin erabat ados daude txirrindulari eta zikloturista elkarteak, egungo trafikoa motorizatuen erdian ez baitute segurtasunik.

ASMAKIZUNIK EZ


Proiektua indarra hartuz doan arren, bultzatzaileek eurek ezer ez dutela asmatu aitortzen dute: "guk ez dugu ideia berririk izan, behar hori kalean somatzen zen. Gero eta jende gehiago animatzen da pasiatzera nahiz bizikletan ibiltzera". Trenbidea berreskuratzearen ideia ere, ez dela euren asmakizuna diote: "Gai-

nerako herrialde industrializatuetan, erabiltzen ez diren trenbide zaharrak interes handiko baliabidetzat jo izan dira eta aldapa bigunekin diseinatuak egoteaz gain, konektagarritasun ona eskeintzen dutenez, ibilbide bihurtu izan dira". Beste herrialde batzuetako esperientzia kontutan izanda, hondamen prozesuan dagoen trenbidearen azpiegiturak, bide sarea sortzeko aukera eskeintzen duela uste dute. Hori irakurtzean batek baino gehiagok pentsatu du, dagoeneko galduta dauden bidezatiak zelan demontre berreskuratuko diren. Baina oraingoz egin den proiektuaren helburua ez da arazo teknikoei erantzuna ematea; aurrera atera daitekeen planteamendua aurkeztea baino ez dute egin. Hala ere, badakite, bidea lehen zegoenetan eskuratzea zaila izango dela eta bide alternatiboak bilatu beharko direla.

JAURLARITZAREN JARRERA


IGPtan aurkezteaz gain, trenbidea berreskuratzearen ideia Josu Bergarari, Jaurlaritzako Garraio kontseilariari azaldu diote. Kontseilariak izandako bilera positiboa izan ei zen eta promesarik egin ez

Trenbide zaharra berreskuratzearen aldeko proiektua, Arrasate eta Leintz Bailarako ia 40 talde eta elkarteak sinatu dute. Besteak beste, kirol eta kultur arloko elkarteak, jubilatuek, emakume eta gazte elkarteak, merkatarien elkarteak... Guztien iritzia jasotzea zaila denez, talde batzuri galdetu diegu proiektu honen alde zergatik sinatu duten.




Josemi Arregi. San Franzisko Xabier Ikastolako lehenakaria:

"Moeta honetako tokia gure neska-mutikoentzat onuragarria izango da, motorrik gabeko garraiobideak erabili ahal izango baitituzte. Gainera kirol ekintzak eta kanpoan egiten direnak errezago egingo lituzkete eta jakina, guzti honek haurraren garapenean laguntzen du".



Mikel Arana. Besaide Mendizale Elkarteko lehenakaria:

"Gure bailarak aisialdirako ibilbide lasaiak, seguruak eta zarata nahiz kutsaduratik babes-tuta egongo direnak behar ditu. Gainera mendizaletasuna ez da bakarrik goimenditara joatea, naturarekiko harremanetan pasiatzea, mendizaletasunaren beste adar bat da".





inezko eta txirrindularientzat berreskuratzea nahi dute trenbidea.

zuen arren, administrazioak halako proiektuak bultzatzeko asmoa baduela azaldu zien. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailaren enkarguz, injeneru elkarte baten orain dela gutxi EAEn bizikleta bideak egiteko plan orokorra prestatu zuen. Jaurlaritzaren helburua ere bizikleta trafikoa sare orokorreko errepideetatik kendu eta paseorako edo kirola egiteko bideak eskeintzea da. Gainera, plana bera, trenbide zaharren azterketa eginez hasten da eta obrak egiteko balorazioa ere egiten du. Gure ingururako, hau da, Eskoriatza-Arrasate zatirako 73,9 milioiko aurrekontua dago ezarria eta Arrasate-Bergara zatirako 71,8 milioikoa. Baina guztia asmatuta dagoen arren, ez da batere gauzatu eta momentu hauetan artxibatua dago.

ASMOA: ZABALKUNDEA

Apur bat zirikatzearekin askotan nahikoa izaten dela kontutan izanda, horrelako

ekimenak Euskal-Herriko beste toki batzuetan ere bidera daitezela lortu nahi da. Horregatik, nahiz eta oraindik azken erabakirik hartu ez duten, ekimen honen bultzatzaileak elkarte sortzekotan dabilta. Elkartearen eginberrak ez litzateke, jakina, inguruko aukera guztiak aztertzea, lehen esan bezala, beste batzuk ere honelako proiektuak aurkeztera animatu eta bultzatu nahi dituzte. Gainera, errepideren bat egiten den bakoitzean, administrazioak oinezko eta txirindulariak kontutan hartzeko ohitura har dezan nahi da. Honetaz gain, maiatzaren erdialdean, oraindik zehaztugabe dagoen egunen baten, aparteko ekintza bat prestatzekotan dabilta. Ekintza horretan, proiektu honen alde sinatu duten elkarte desberdinek ere parte hartuko lukete. Eta noski, konpromezuak hartzea behartu nahiz, administrazioari ere gonbitea luzatuko litzaiotke.



GPetan eta Jaurlaritzan oso harrera ona izan du.



ibilbidean halako arriskurik ez izatea lortu nahi da.



Rosalio Zubizarreta.

Abaroa Jubilatuen Elkarteko lehendakaria:

"Jubilatuok kopuruz kolektibo garrantzitsua osatzen dugu eta pasiatzea gehien egiten dugun kirola denez, ibilbide egoki eta seguru baten beharra dugula uste dugu. Familiarteko eta lagunak lasaiago sentituko lirateke, leku seguruan pasiatzen dugula jakinda".



Goio Eskibel. San Viator Komunitateko ordezkaria:

"Nire ustez, trenbidea egin zuenak artelan bat egin zuen, beraz, horregatik bakarrik, mereziko luke trenbidea berreskuratzea".




Rafa Etxabe. Arrasateko Txirindulari elkarteko lehendakaria:

"Bizikletan ibiltzeko toki seguruak behar dira, inguru hauetan ditugun errepideak benetan arriskutsuak baitira. Horregatik, halako bide seguruak behar dugu.

Haritz Arrieta igeri munduko promesa berria

Tolosan egin berri diren Selekzioko Euskadiko Txapelketetan, Haritz Arrieta, 16 urteko igerilari arrasatearrak, 50 m libretan eta junior mailan 3. postua lortu du, probintzia mailan berriz, lehen postua. Haritz-ek 50m libretan 26" 47"ko denbora lortuz, bere marka gainditu du. Arrasate taldeko igerilari nagusienek, berriz, datorren asteburuan Oñatin izango dute zita. Zapatuan klubben udaberri ligako bigarren jardunaldiak jokatuko dira.



Astebukaeran jokatuko zen txapelketaren irudia.

SASKIBALOIA

Domekan Arrasate Saskibaloitza Taldeak, Atletico S. Sebastian taldearen aurrean, erronka garrantzitsua du. Talde biak 2. mailako liderrak dira eta norgehiagoka

horretan Arrasatek garaipena lortuz gero, lehen mailara igotzeko, igoera faseko txartela, eskuartean izango luke. Galduta ere, oraindik aukerak izango lituzke. Igandean betan jokatuko den neurketa

garrantzitsurako autobusak antolatu dituzte, debalde izango dira eta joan nahi duzuenok Kajoi eta Monte tabernetan eman dezakezue izena edo 799180 telefonora dei egin.

LABURRAK

Ibilaldia

Arrasate kirol proiektuak, Arrasateko ikastetxe guztietako eskola-kirol antolatzen duen erakundeak, Besaide mendizale elkartearekin batera, igandea, mendi ibilaldi bat antolatu du apirilaren 24rako. Ekintza hau Arrasateko herriari zabaltzen zaio eta kirol proiektuko ikasle, guraso eta senitartekoei bereziki. Irteera goizeko 9 etan Monterronetik izango da eta itzulera eguerdiko 12ak aldera. Ibilaldiaren iraupena 3 bat ordutakoa izango da eta 3. mailatik 8. mailara bitarteko ikasleei zuzendua dago. Ibilaldiaren ibilbidea: Monterron, San Kristobal, Mehatzerreka, Udala (han txorizo eta salda hartuko dute) eta Iturripe.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 2 - Amorebieta 2
2. regionala (kopa): Antzuola 2 - Mondra 8
Emakumezkoak (kopa): Mondra 4 - UDA 1
Jub. Ohorezko Liga: Mundaiz 0 - Mondra 5
Jub., 2. maila: Arrasate 4 - Billabona 4.
Kadeteak, 1. maila: Aloña Mendi 1 - Arrasate 0
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 3 - Intxurre 2.
Haurrak: Arrasate 10 - Urki. 1
Hurrengoak:
3. maila: Gernika - Mondra. Gernika, igan, 5etan
Emakumezkoak (kopa): Aloña mendi - Mondra. Domeka 12'15.
2. regionala (kopa): Mondra - Mutriku. Atxabalpe. zapatua, 5etan
Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Irundarra. Domeka, 5etan

Jub., 2. maila: Gazteak - Arrasate. Domeka, 10etan.
Kadeteak, 1. maila: Arrasate- Aitzgorri Domeka, 11'30etan
Kadeteak, 2. maila: Amaro- Arrasate. zapatua, 12etan
Haurrak: Hamaika bat- Arrasate.zapatua 10'30etan

Saskibaloia

2. maila, igoera fasea: Arrasate 99 - Patronato Bilbao 83
Hurrengoak:
2. maila igoera fasea: Atletico S.SS - Arrasate Sub 23: Goierri - Arrasate A - Urretxu
Jubenilak: Arrasate - askatuak

Eskubaloia

Igoera fasea: Arrasate kirolak 24 - Deustu 26
Hurrengoak:
Igoera fasea: Bergara - Arrasate kirolak

Pilota

Deba Arroa txapelketa, Arrasate - Oñati (0-3):
Nagusiak (22 - 4, jubenilak (22 - 14), infantilak (18 - 10)
Herri-artekoa, eskuz, Arrasate - Azpeitia (4 - 2)
Nagusiak (22 - 12), jubenilak (12 - 22)), infantilak (18 - 1).
Herri-artekoa, erramintaz.
Paletaz (35-34), pala motzear (30-40).
Hurrengoak:
Herri - artekoa, eskuz, Arrasate - Antzuola. Domenka 10'30etan.



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**


Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

**MARKO-
JARTZEAK**
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



GOIMAILAKO OSTALARITZA ESKOLA
ESCUELA SUPERIOR DE HOSTELERIA

Oñati

1994-95 IKASTURTERAKO ESKAINTZA

3. Mailako moduloak:

* Elikagaien Industrietan
Tekniko Espezialista



* Harrerako Tekniko
Espezialista

2. Mailako moduloa:

* Sukaldaritzako tekniko
Laguntzailea



Izenematea: Maiatzaren 4tik 18ra
Arrasateko Eskola Politeknikoan
Informazio gehiago: Tfnoa: 71 61 94 - 71 61 90

Apirilak 23, liburuaren eguna ... baina irakurtzen da?

Askotan entzun ohi da gutxi samar irakurtzen dela. Oraingo denbora hauetan lehen baino irakurle gutxiago dagoela. Iraganean, liburuak irentsi egiten genituela, hain gutxi zirelarik eta gaur egun, ordea, inor ez dela jabetzen liburuek eta irakurketak duten garrantziaz.

Auzi honetan, iritzia eskatu didatenez gero, ene ueste apalean ematen saiatuko naiz. Haur-liburuzaina naizen unetik, esan behar dut ez naizela ni iritzi horretakoa. Arrazoiak emateko orduan, aldera dezagun oraingo egoera eta orain dela hogeitamar urtekoa. Askoz ere liburu eskaxagoak zeuden, bai kantitate eta bai kalitate aldetik. Gainera, nire esperientziaren arabera, ez ziren gaur bezain arduratsu eta prestatuak egoten. Egundik, ikastetxe gehienetan liburutegi txikiak dauzkate, kalean liburudendak aurki daitezke, udal-zerbitzuek liburutegi publikoak eskaintzen dituzte herritarrentzat... Horrela, liburuak nonahi ikus ditzakegu, egunerokoak bihurtu zaizkigu eta horrek izugarriko eragina daukalakoan nago.

Hala ere, eskolak irakurzaletasunaren alde jokatzeko duen paperaz zenbait gauza esan genezake, adibidez, irakurketa funtzionala bultzatzen dutela, eta ezer gutxi, berriz, irakurketa estetiko. Beste modu batean adieraziz, gustoz eta askatasun osoz hau-



tatutako irakurketak ia ez dira ematen, gehienetan irakasleek aukeratuak baitira eta batzuetan eurek ere ez dituzte irakurri.

Horrek, dudarik gabe, eragin nabarmena du ikasleengan. Ez dezagun ahaztu honetan Daniel Pennackek "Como una novela" deritzon liburuan aholkaturiko gomendioa: "Ez irakurtzeko eskubidea". Jakin badakigu, beharturik egindako ekintzek, zenbait kasutan, fruitu onegiak ez dituztela ematen.

Zentzu honetan, adierazkorra da liburutegira hurbiltzen diren umeen portaeraz ohartzea: ez dute jarrera bera derrigorrezko irakurketaren

aurrean eta gogozkoa denaren aurrean. Aldarteak erabat ezberdinak izan ohi dira eta horixe da, hain zuzen, funtsezko abiapuntua irakurketaren gustua sortarazteko: plazertzat hartzea, gustoko jarduna izatea.

Gauzak horrela, hasierako hariari helduz, arazoa ez da egungo ume eta gazteek gehiago edo gutxiago irakurtzen duten, baizik eta hola irakurtzen den. Kalitatea hobetsi behar da kantitatearen ordez.

Baina, jakina, kalitatezko liburuak ezagutu behar dira. Irakurleek arduraz gehiago izatea ere ez litzateke txarto etorriko. Batzuetan, urtero liburu berberak bidaltzen dituzten.

Eta hauek ere, kasu askotan, ez dituzte irakurtzen umeek bidali baino lehen. Beraz, komenigarria da gai horretan kezka sortaraztea.

Amaitzeko, garrantziko beste puntu bat aipatu nahi nuke. Ezin dugu ahaztu helduek duten eragin positiboa umearen irakurzaletasuna pizteko orduan. Helduek zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta indartsuago ekingo dio umeak irakurtzeari.

Ez dezagun ahaz, beraz, helduok dugun papera.

Ez diezazkiogun umearengure erruak lepora.

ASUN AGIRIANO
HAUR-LIBURUTEGIKO
ARRURADUNA

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK
77 08 15

SAMEGO
GARBIKETAK
Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39


M
MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria
Arriku gerentea
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.
Boulevard, 11 5^a-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA
Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

ZER NAHIAGO?

Mikel Beitia

Kakitzat talde antimilitaristako partaidea

- Zer ez zenuke sekula jantziko? Pintzadun prakak.
- Zer moduzko etorkizuna ikusten diozu intsumisioari? Oso ona.
- Zine zuzendari bat? Juanma Bajo Ulloa.
- Goxozalea zara? Bai, nahiko goxozalea.
- Komikirik irakurtzen duzu? Bai, batzutan Asterixenak
- Apurtu zaizun azken gauza? Plater bat.
- Zer erosteko asmotan zabilta? "Mountain Bike" bat.
- Lo egiteko; bakarrik ala konpainiaz? Konpainiaz, jakina.
- Amak bota dizun azken errietaren arrazoia? Behingoz lana topatzen hasteko esan zidan oso haserre.
- Martinsak edo kirol-zapatilak? Kirol-zapatilak.
- Igo duzun azken mendia? Udalaiz.
- Erraz maitemintzen zara? Ez dut uste.
- Sinisten duzu horoskopotan? Komeni zaidanean bakarrik.
- Zer uste duzu dagoela heriotzaren ondoren? Sekula ez dut hori pentsatu.
- Inoiz jarriko zenuke belarririk? Bai.
- Zerk beldurtzen zaitu? Heriotzak.
- Zer amets egin duzu gaur? Egia esan, ez dut gogoratzen.
- E.Htik kanpo bizi izatera joatekotan, nora joango zinateke? Brasilera.
- Bueltatzeko asmoz? Agian ez.
- Egun batez munduan jaun eta jabea izango bazina, zer aldatuko zenuke? Gartzelak kenduko nituzke.
- Zenbatean behin mozten duzu bizarra? Astean behin.
- Egin duzun azken txorakeria? Zaragozara fruta batzera joatea.
- Zer esango zenioke intsumiso egiteko dudatan dabilen gazte bati? Intsumiso egin baino lehen, oso ondo pentsatzeko.



BERTSOAK

Apotzako Afaria

Aurten Lenizko bertsozaleok Nikolas nai dou omendu urte mordoan guri laguntzen lana ugari egin du jakinagatik zor degun dana ezin degula ordaindu aldan apurra bihotzez eiten bear gera alegindu maite degula aitortutzera Apotza aldera hurbildu.

Bertsolaritzan goi mailakoa onena gaiak ipintzen bera serio egonagatik daki umorea sortzen euskal oitura eta euskaragatik lanean ez da aspertzen mesede bat eske jun ezker berak ez daki ukatzen ez da nahikoa fraile Nikolas behar bezala eskertzen.

AGARRE.



PACK JOVEN

- BAUSCH & LOMB ERABILI ETA BOTATZEKO UKIPEN LENTEAK
- DISOLUZIO BAKUNEKO BI POTE
- LENTEAK ERAMATEKO ESTUTXEA
- ETA *Ray-Ban* ak OPARITUKO DIZUGU!!

BAUSCH & LOMB

La tecnología más avanzada del mundo en lentes de contacto

BAKARRIK
17.000 Pta.

MULTIOPTICAS

J. Larranaga
ARRASATE - BERGAR 1
ORDIZIA

Isabel Gallastegi eta Itziar Aranburu

Abesbatzen topaketak, berriztuak

Apirilaren 23an, larunbatean, Deba Garaiko Eskola Arteko Abesbatzen VII. Topaketak izango dira. Aurten, LOGSEa dela eta, hainbat berritasun onartu dira abesbatza bakoi-tzaren saioan, antzerkia eta instrumentuen erabilpena esate baterako. Horretaz mintzatu zaizkigu Isabel Gallastegi eta Itziar Aranburu, SFX ikastolako antolatzaileak.

— Zeintzu dira, LOGSEa dela eta, egin dituzuen aldaketak?

— Alde batetik, taldeak beste modu batean banatu ditugu; Eskolaurrea, OHoko Ingo, 2. eta 3. mailak, OHoko 4., 5., eta 6. mailak eta derrigorrezko 2. hezkuntza, hau da, 7. eta 8. mailak. Lehen, zikloka banatzen ziren, Eskolaurrea, Hasiera Zikloa, Erdi Zikloa eta Goi Zikloa. Bestalde, instrumentuen erabilpena onartzen dugu orain: eskolaurrekoen kasuan, nagusiek lagunduko diete instrumentuekin eta gainontzeko taldeetan, abesten duten ikasleak izan beharko dira instrumentuak jotzen dituztenak. Azkenik, abestia mimo edo antzerkiarekin lotu daiteke, hau da, nolabaiteko dramatizazioarekin. Hau, LOGSEk musika, artistika eta dramatiza-



zioarekin lotzen duelako onartu dugu. Egia esan, umeak oso protagonista sentitzen dira egun horretan, oso ekintza motibagarria da umeentzat.

— Beraz, topaketa askoz ere "ikusgarriagoak" izango dira, ezta?

Aurten berritasun hauek onartzen diren lehen urteaz denez, ez dakigu zein puntura arte egingo duten taldeek mimoa eta instrumentuen erabilera, baina bidea zabalik dago datozen urteetarako, eta jakina, elementu berri hauek erabiltzen dituztenek, ikusgarritasun handia eran-

.....
"Orain, abestiei mimoaz eta musika-tresnekin lagundu ahal izango zaie"

tsiko diete topaketei, dudarik gabe.

— Zein izaten da umeen erantzuna topaketen aurrean?

— Beno! Aste bat lehenago oso urduri jartzen gara denok. Baina oso erantzun ona ematen dute; astean 3 aldiz entsaiatzen dugu eta guztietara etorri izan dira oso puntual. Gainera, nahi duen guztiak har dezake parte; nagusien mailan izan ezik, beste maila guztietan ez da inolako aukeraketarik egiten.

— Zelako eboluzioa somatzen duzue lehen topaketatik VII. erarte?

— Hasierako topaketa, txapelketa kutsua izan zuen baina berehala konturatu ginen hori ez zela gure asmoa; gure helburua inguruko ikas-tetxeen artean harreman bat emateaz zen. Aurten, 700 ume elkartuko ditugu eta entzule ugari, ondorioz.

LABURRAK

"Emakumea eta Kirola" erakusketa

Aukeak eta Udaleko Emakumearen Sailak elkarlanean, "Emakumea eta Kirola" erakusketa antolatu dute Monterreren. Erakusketa osoa, Madrilgo Emakumearen Institutuak utzitako erakusketa dela aipatu behar da. Bertan, XIX. mendetik 60. hamarkadararte emakumeak kirolaren munduan izan duen partehartze eta presentzia azaltzen da argazki, testu eta bideo baten bidez. Argazki guztiak, estatu mailan ateratakoak dira. Erakusketa, apirilaren 24ra arte egongo da zabalik.


San Juanetako kartelen lehiaketa

San Juan jaietarako bi hilabete besterik falta ez direla eta, zabalik dago jaiak iragarriko dituen kartelaren lehiaketako epea. Arrasaten bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan eta teknika libreza izango da. Kartelaren neurria, 50x70 neurrikoa izan beharko du eta "1994 San Juan Jaiak Arrasate" testua eraman beharko du derrigorrez. Irabazleak, 100.000 PTako saria etxeratuko du. Lanak maiatzaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
 Tfnoa: 79 77 11
 Faxe: 79 77 11
 ARRASATE
 Postakutxa: 118



Iturriotz, 7
 arrasate
 Tnoa: 79 04 67

LABURRAK

Kultur Astea San Andresen

San Andreseko Herri Eskolak Kultur Astea antolatu du apirilaren 25etik 29ra bitartean. Aste horretan zehar, denetarik izango da eskolan: Ikasleek egindako antzerkiak, bertso saioak, 8. mailakoek prestatutako kareta, gatz eta tolestatze tailerrak, pelikula, Play Back jaialdia, Virginia Imazen ipuin kontaketa eta beste hainbat ekintza. Kultur Asteari behar bezalako giroa emateko, ikasleen marrazkiz apainduta egongo da aste osoan zehar eskola.

Kirol Materialak euskaratzeko beka

Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak, Kirol Materiala euskaraz sortzeko beka antolatu du. Helburua, kirol entrenamendu sistemei buruzko liburu bat euskaraz sortzea da. Aurkeztutako lanek atal desberdinak izan beharko dituzte: Kirol entrenamenduaren teoria eta praktika azalduko duen atal bat, alde batetik, eta kirol ezberdinetako aplikazioak azalduko dituen beste bat. Testuak, 130-150 orrialde inguru izan beharko ditu eta diru kopurua, 400.000 PTAKoa izango da. Bekari buruzko argibide gehiago, Arrasate eta Bergarako Udaletako Euskara eta Kirol Zerbitzuetan aurki daitezke.



Erakusketa apirilaren 15ean zabaldu zen.

AMTren lehen erakusketa kolektiboa

Arrasateko Margolari Taldeak, bere taldeko lehen erakusketa kolektiboa burutzen ari du Harresi Aretoan. Erakusketa, Apirilaren 15etik dago zabalik eta datorren igandean, apirilak 24rarte, talde honetako artisten margoak izango dira ikusgai.

ATZERA BEGIRA

Gogoratuko duzuenek, Arrasateko Margolari Taldea, AMT izenez ezagunagoa, duela 7 hilabete sortu zen. Taldea sortzeko asmoa, duela urte t'erdia sortu zen Arrasaten dauden margozaletan guztien inizatibatik. Bertan aritzen diren margolariak, aspalditik ezagutzen zuten elkar, udalak antolatutako margo ikastaroetan arituak baitziren. Orain, 26 bazkidek osatzen dute AMT.


18 margolari arrasatearren margoak daude erakusgai Harresi Aretoan. Afizioz margotzen duten artistak dira, baina euren lanen kalitatea ona da benetan, erakusketako margoak ikusi besterik ez dira egin behar hori horrela dela frogatzeko. Margolarien izena aipatzea merezi du beraz: Kontxita Arana, Amaia Aranzabal, Rakel Arenaza, Luis Jabier Arrieta, Feli Etxeberria, Begoña Kortabarria, Gurutze Galbete, Mari Carmen Gorosabel, Maribel Hernandez, Xeli Mendizabal, Manolo Quebedo, Iñaki Riviere, Joakin Rodriguez, Montse Roldan, Marcelino Ruiz, Eneritz Tirados, Kontxita Zarraoa eta Iosu Uribeberria. Dena dela, bazkide guztiek ez dituzte beren lanak erakutsi.

Erakusketan, estilo eta gai guztietako margoak ikus daitezke, artista bakoitzak bere estiloa isladatzen baitu margoetan.

AURRERA BEGIRA

Aurrera begira, hainbat proiektu edo asmo jarri nahi ditu martxan taldeak. Epe laburrera, ikastaro bat dute ikusmiran. Joan den urtean egin zuten moduan, aurten ere, Mentxu Gal margolari ezagunak emango duen margo ikastaroan parte hartzeko asmoa dute hainbat bazkidek. Ikastaroa, Zumaian burutzekoa da, Ignacio Zuloagaren museo-etxean. Ikastaro honetaz gain, inguruko herri eta hiriburuetan margo erakusketak antolatzekotan, margo taldea berarek bisitatzera joango litzateke.

V. O. Version Original
General Alava, 16 - Tfnoa: 13 33 39 - GASTEIZ



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE


HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



Orain 60 urte inguru San Franziskoko kalistroetan ateratako erretratu honetan, Merzedarien eskolako ikasle taldea ageri da, denak neskati-lak. Goiko eskolakoak ziren, Sor Maria Jacinta Uribesalgo

zuten maistra eta domeketan mezetarako jazten zuten uniformeak jantzita daude, dotore-dotore.

Goiko iladan ezkerretik, **Ines Arizaga, Maritxu Etxeberria, Katalina Berriotxo, Tomasa Beitia, Felisa Muguruza, Restituta Olazabal, Inozentzia Azkoaga, Estefania Biain, Maria Luisa Santamarina, Pakita Iturbe, Miren Arizaga, M. Karmen Iraeta, Isabel Iturbe eta Pilar Aranbarri.**

Julita Portillo, Grego-

ria Arroiabe, Maria Ezkairai, Nieves Palacios, Anparo Balerdi, Maria Arenaza, ezezaguna, Rosario San Miguel, Emilia Otadui, Luisa Berriotxo, Juanita Arana, Antonia Arana eta Nekane Kerejeta.

Akilina Mendizabal, Luisita Uribetxebarria, Asunzion Abasolo, Filipa Otadui, Floren Arregi, Bitoria Gallastegi, Karmen Olazabal, Franziska Berezibar, Angelita Arzamendi, Angelita Altuna,

ezezaguna eta Felisa Aranburu.

Kontxita Berriotxo, Pilar Arroitia, Konsuelo Azkarraga, Lolita Garzia, ezezaguna, Kontxita Azkoaga, Rosario Perez de Arenaza, Maria Albistegi, Matilde Azkarraga, Arana, Maria Uribesalgo eta Bizenta Unzueta.

Inozentzia Kabijertua, Mikaela Bakarte, Agedita Montiano, Julita Aranburu, Tomasa Barrutibengoa eta Anparo Bengoa.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

● Juanjo Perez El Salvadorreko hauteskundeetan begirale

27 urteko atxabaltar honek behin baino gehiagotan zeharkatu du pazi-fikoa. Nikaragua eta El Salvadorren brigadista lanetan aritutako da. Baina aurtengo marxtoan El Salvadorrera egin duen azken bisitak beste helburu bat zuen: bertako hauteskundetan begirale izatea.

- Zer dela eta joan zara El Salvadorrera?

- Aurten Elkarrik gonbidatuta, Rebeca Palacios, frenteko komandante izandakoa Tolosara etorri zen El Salvadorreko bake prozesuari buruzko hitzaldia ematera. Ondoren, hauteskundetarako begirale internazionalak behar zituztela eta, frenteko partaideek Elkarriri luzatu zioten gonbitea. Ni neu Elkarrin ari naiz lanean eta horregatik, aukera hori azaldu zitzaidan.

- Euskal Herritik zenbat begirale joan zineten?

- Munduko toki desberdinetatik joandako 2.500 begirale elkartu ginen. Begirale kopuru handiena EEBBtatik hurbildu zen eta ondoren, Euskal Herritik joandakoak ginen gehien. Gainera gehienok El Salvadorreko alderdi politikoek gonbidatuta joan ginen. Bisitari moduan joandakoak gehiago ginen, bisitari ofizial gutxiago zegoen.


● “Irregularitasun handiak izan ziren eta garbi garbiak gainera”

- Zein izan zen zuen lana?

- Hauteskundeak baino bi egun lehenago, ikastaro bat izan genuen bertako unibertsitatean. Bozkatzeko prozesua zein zen eta zelako irregularitasunak gerta zitezkeen erakutsi ziguten. Ondoren herri desberdinetan sakabanutu gintuzten eta bakoitzak bertako kolegioren baten egon behar zuen begirale moduan. Nik zortea izan nuen eta brigada mugikorrean lan egitea tokatu zitzaidan. Horregatik, kolegio desberdinetan zehar ibili nintzen, baina gehienbat San Salvadorreko periferian zeudenetan. Gure lana bozkatzeko orduan zein arazo izan ziren ikertu, prozesua zuzentasunez eramaten zen ikusi eta irregularitasunen berri jasotzea izan zen. Orain, ordea, ikusi dugunaren berri eman behar dugu.

- Irregularitasun handiak izan ziren?

- Askok eta garbi garbiak gainera. Batzuk, hauteskunde eguna baino lehen. Orduarte 2 milioi pertsonak zuten bozketarako behar zen karnet ofiziala. Hauteskundeak baino lehen, epe motz bat zabaldu zen botua eman nahi zutenek karnet hori atera zezaten, eta epea amaitzean esan zen eskatu zuten 786.000 pertsonen egin zitzaizela karneta. Baina hauteskundeak pasatokoan jakin zen 420.000 kar-



net bakarrik banatu zirela. Beraz, 300.000 lagun karnet barik geratu ziren. Gainera karneta ateratzeko data azaroaren 19an bukatu zen. Baina hemendik hauteskunde bitartean 120.000 gaztek 18 urte bete zituzten, beraz, haiek ere ez zuten bozkatu. Bestalde garai batean frenteak kontrolatu zituen lurraldeetako 80.000 lagunek ere ez zuten karneta atera, jaiotze ziurtagiririk ez zutelako. Guztira 500.000 pertsonak ezin izan zuten botua eman.

Etan bozketa egunean trikimailurik izan zen?

- Bai, noski. Hiriburua, adibidez, oso handia da eta milioi bat pertsona bizi dira bertan. Ba, oso kolegio gutxi zabaldu zen eta igandea zenez, garraio publikoek ez zuten lan egin, beraz, erraztasunik ez zegoen. Bestalde

bozkatzeko prozesua luzea zen eta horren kalterako kolegiok berandu zabaldu ziren, horregatik, guztiek ez zuten bozkatzeko aukerarik izan. Gainera, batzuri gertatu zitzaizen, bozkatzera joan eta beste norbaitek bere izenean botua emana zuela edo beste batzuei esaten zitzaizen euren datuak ez zirela ageri eta ezin zutela botorik eman; hildakoen karnetak ere erabili ziren... Botoak zenbatzean ere gauza asko ulertezinak ziren. Mahai bakoitzean gehienez 400 pertsonak eman zezaketen botua, baina batzutan 1.200 botu zenbatu genituen. Datu guzti hauek ez dira nik asmatutakoak, objetiboak dira; UCA unibertsitateak, ONUSAL, eliza desberdinek eta herri mugimenduek onartu dituzte.

- Igandean lehendakaritzarako hauteskundearen bigarren buelta izango da. Azpikioek jarraituko dute?

- Bai, jakina. Irregularitasunek hor jarraituko dute.

• AIPUA •

“Historia gezur enkuadernatua da”

JARDIEL PONCELA

• JEROGLIFIKOA •

JaO
JeO
JiO
Jo
JuO

Musean

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10				11		
12			13		14	
15			16		17	
	18	19				
20						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasateko Gastronomi Elkarte. 8. Amerikan jaioa dena. 10. Garbai. 11. Emeen sexu-atalen irekidura. 12. Korta, ikuilu. 14. Latinezko esaldietan erabilia da. 15. Zamoraklo ibilgailuetan. 16. Apropos. 18. Tolestura. 20. Aterki.

Bertikalak 1. Andaluziako hiria. 2. Itzali. 3. Gizonezkoa bere gurasoekiko. 4. (Ald.) Balus, herenile. 5. Neu. 6. Betekada. 7. Antzeko. 9. (Ald.) Arrantzarako leku ona. 13. (Ald.) Biltegi. 17. Osatu aditzaren infinitiba. 19. Txakur.

• HOROSKOPOA •

Aries Zure urtebetetzean uste baino erregalu gutxiago jaso duzuela eta triste? Zer espero zenuen, bada?

Taurus Hori da geldik egon ezina! Bixixoak dituzula ematen du... Jan berakatz!

Gemini Urte sabatikoa hartzea ondo dago, baina hori ez da urtero izaten, txo!

Cancer Ezkontzarako erropak berriak egin behar dituzula? Pentsatu ondo zer erosi behar duzu, edurra eginen be.

Leo Liburuaren Nazioarteko eguna dela, baina hori ez da zuretzat asmatu. Gutxienez hautsa kendu behar zenieke.

Virgo Itxulapikoan pilatuta zenuen dirua jan duzu berriro ere. Zuri ez dizu diruak umerik egingo, ez.

Libra Gerri aldera begira eta zeuk pentsatu zen egin behar duzun, kilorik soberan duzun edo...


Scorpio Badakigu erromeriak hasteko irrikitan zaudela. Esango dute berriro ere!

Sagittarius Bizkar-hezurreko minak oso normalak dira zure adinean.

Capricorn Sabeleko minarentzat senda belarrak hartzea hobe, botikaz kutsatu barik.

Aquarius Ura dela zure seinua? Gezurra dirudi, dutzarako behintzat ez duzu sarri erabiltzen.

Piscis Humore txarreko zaudenean izua ematen duzu. Ea astebururako alaiago jartzen zaren!



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...



KÖMMERLING
PVCzko
leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnok: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE

• TERE ZABALAREN GOMENDIOA •



Udaberria da Tereren urterik gogokoena, eta horren inguruko gomendioa luzatu nahi digu, eguraldiak oraindik udaberri antz haundirik ez daukan arren. "Eguraldi ona egiten hasten denean, eguna ere luzeza denez, pasiatzeko, mendira joateko, edo hondartzara joaten hasteko aprobetxatzea" gomendatzen du. Edadeko pertsonentzat ere pozgarri izaten da eguzki epeletara urtetea. Eta ibilaldiren baten kukuak harrapatzen bazaitu ere, "badaezpada aldean dirua izatea komeni da, urte guztian dirua izateko, esaerak dioen moduan". Esaera zaharra ere gogora ekarri digu: "Pazkuetan kuku, San Pedro mutu".

• PROGRAMAZIOA •

**17 Igandea**

20.00etan
Astebete (errep.)
20.30etan
Mondragol

18 Astelehena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Kukaratxa Motel" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Filme Erraldoia: "Goonietarrak"

19 Asteartea

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep.)
14.05etan
"Goonietarrak" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
"Excalibur"

20 Asteazkena

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan (errep.)
14.05etan
"Excalibur" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Dokumentala: "Petrolioia; Espezieen eboluzioa"


21 Osteguna

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Tertulixan (errep.)
14.05etan
Dokumentala (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka: Gonbidatua: Juan San Martin
Arartekoa
22.00etan
Euskal filmea: "Kareletik"

22 Ostirala

13.35etan
Bakarka (errep.)
14.05etan
"Kareletik" (errep.)
19.15etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren filmea: "Arturo Erregea"

• KOMIKIA •



Leire Zubikarai

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo
eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tinoa: 79 20 10 ARRASATE

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

• SOLUZIOAK •

JERROLIFIKOA
Jokorik ez.

Or.
Iruñeko, 9. Kala, 13. Tegi, 17. Osa, 19.
Seme, 4. Illeguri, 5. Ni, 6. Oka, 7.
Bertikalak 1. Cadiz, 2. Amatain, 3.
Eurtako.
Ad, 15. Za, 16. Egoki, 18. Toles, 20.
rikar, 10. Dama, 11. Aizu, 12. Itegi, 14.
Horizontalak 1. Casino, 8. Ame-
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaeuz deitu. Luis.
- **Zure etxean gela bat libre** baduzu, neuk alokatuko dizut. Tfnoa: 77 04 98. Irene. Bulego orduetan deitu.
- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan**. 90m2takoa. 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta ganbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. 8etatik 3etara
- **75 m²tako etxebizitza salgai**. Maala kalean, 23 zka. Tfnoa: 79 34 54.
- **Pisua saltzen da**. Santa Marina, 32. Sukaldea, egongela, 4 logela, bi bainu, 3 terraza, igogailua, berogailu zentrala, ... Tfnoak: 77 06 72 - 79 65 28.
- **Etxebizitza salgai** Santo Domingon (Errioxa). 85 m² berdegunedun urbanizazioan. igerilekua, frontoia, tenis zelaia. Erdialdean. Jantzia. Prezioa: 9.750.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Pisua alokatu nahi dugu** Arrasaten. Tfnoa: 80 12 97. (Arrasaldezu deitu) Oier.
- **Logela bi oherekin** eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje itxia** alokagai Lanbideko urbanizazioan. Tfnoa: 79 19 64. Arrasaldeko 8etatik aurrera.
- **Pisua alokatu nahi baduzu**, neuk badaukat bat. Dei egin 79 80 04 tfnora. Salva.
- **Pisua salgai**. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 komuna, 2 terraza, garajea eta berogailua. Tfnoa: 77 07 91.

Lana

- **Esperientziadun andrea etxeko garbiketak** egin eta hurrak zaintzeko prest dago. Bulego eta atariak ere garbituko nituzke. Dei egin 79 31 44 tfnora. Miriam.
- **Emakume euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. (Orduka). Tfnoa: 79 96 31.
- **Emakumea eskaintzen da** garbiketak egiteko, etxeak, bulegoak... Interesatuak dei egin dezala 79 63 27 tfnora. Natividad Uriarte.
- **Inglaterrara au-pair** bezala joateko konfidantzazko famili bat ezagutzen dut. Tfnoa: 79 24 59. Kris.
- **Masajeak etxean** emateko prest. Estheticienne eta kirol-masajista naiz. Tfnoa: 79 72 29. (Mari Karmen).
- **Esperientziadun neska** hurrak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Neska bat etxeko lanak** edo bulegoak garbitzeko prest. Tfnoa: 79 49 05. Edurne.
- **Emakumea garbiketa** lanetarako, edo haur eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Masajista tituloduna** masaia terapeutikoak, kirol masaia, erlajazio masaia eta masaia metamorfikoak ematen ditu. Tfnoa: 945 - 27 78 44.
- **30 urteko neska** pertsona nagusiak, gaisoak edo elbarrituak zaintzeko prest. Euskara ulertzen dut. Klinikako laguntzaile ikasketak eginda ditut.

Salerosketak

- **Salgai: Amstrad 2086 PC** ordenagailua. Barruko 3 1/2 tako disketera, kanpoko 5 1/4 tako disketera, VGA pantaila, xagua, Acad diskoak, D Base diskoak, Lotus diskoak, jokuak. Prezioa: 30.000 PTA. Interesatuok dei egin 79 56 83 zbkira eta Eduardoz galdetu.
- **Argazki kamara** saltzen da, automatikoa, 2 objektiboduna. PRAKTIKA Bx20 markakoa. Berria. Interesatuok dei egin 79 49 05. Edurne.
- **Kanping denda familiarra** saltzen dut. Berriberria da. Tfnoa: 79 45 39. Jose Felix.
- **Eskiatzeko buzoa**. 42-44 tailakoa. Berria. Diseinu modernokoa. Prezioa: 10.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **2 Oheko logela klasikoa** salgai. Egoera onean. Tfnoa: 78 19 93. Goizeko 11.30etatik aurrera.

Denetarik

- **Telebista bat bota** behar baduzu eta oraindik martxan badabil, akordatu nitaz. Tfnoa: 79 25 47.
- **Egongelarako alfonbra** norbaitek oparituko balit, gustora ametituko nuke. Tfnoa: 79 64 50.
- **Neskatilaren batek** poltsa bat ahaztuta utzi zuen Gazte Bulegoan, barruan bainujantzia (loraduna), bainu kapela, e.a. dituena.
- **Borda edo lur zati bat** bilatzen ari naiz. Leintz bailara eta inguruetan. Tfnoa: 71 47 10.

Aste Gazte

Lana

- Diputazioak lanpostu hauen deialdia egin du: hiru bidezain-makinista gidari (epea: apirilak 26); hiru sukaldaritza laguntzaile (epea: apirilak 27); gizarte laguntzaile bat eta hiru itzul-tzaile (epea: maitzak 1).
- Donostiako udalak, lau beharginen deialdia egin du. Epea: maitzak 1.

Bekak

- 1994/95 ikasturtean EAErentzat interesgarri di-

ren gaiotan atzerrian espezializazio ikasketak egiteko bekak. Epea: maitzak 6.

- "La Caixa" Fundazioak 1995-96 ikasturterako, atzerrian ikasketak hedatzeko bekak: Britaina Handian, Estatu Batuetan, Frantzia eta Alemanian. Lizentziatuei zuzenduak. Epea: Uztailak 15.

Naturan Abenturazko Kirol Iharduerak

- Diputazioak antolatuta. Adina: 15-29 urte. Egun ba-

tekoa, asteburukoa, nahiz astebeteko irteerak aukeran. Irteerak: apirilaren 11tik maiatzaren 31era. Plaza mugatuak.

Auzolandegiak

- Euskadin, Espainian eta Atzerrian. Izenematea: a) atzerriko auzolandegietarako, apirilaren 25etik aurrera; b) Espainakoentzat, maiatzaren 2tik aurrera; eta c) EAEan bizi direnentzat, maiatzaren 9tik aurrera.

"Guk Bakea eta Justizia hitzak ez ditugu bereizten, eta hauetara iristeko bidea ez da militarra izango sekula".

I. OTAMENDI. KAKITZAT.

Euskaldunon Egunkaria.



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

kutxan



merkeago daukazu

E T X E B I Z I T Z A - K R E D I T U A K

Badakizu: **kutxak** eskaintzen dizu finantzaketarik onena. Eta orain, gainera, nahi al duzu, etxebizitzari dagokionez, **kutxak** zure alde egin dezakeen guztiaz hitz egin dezagun?

Nahi duzun etxea bilatzen eta aukeratzen laguntzen dizu. Erosteke eman behar dituzun urrats guztien gainean aholkatzen zaitu. Gehien komeni zaizun finantzaketa ikertzen du zurekin batera. Eskubidea duzun onura fiskalen berri ematen dizu. Baita behar dituzun aseguruena ere... Dena, zure oraingo hipotekari dagokiona ere barne, **Kutxa Etxebizitza-Zerbitzuan**.

Zatuz **kutxako** edozein bulegotara eta berehalaxe jabetuko zara. Orain, etxebizitzarekin zerikusia duen guztia, **kutxan** merkeago daukazu-eta.

etxebizitza



zerbitzua

Informa zaitez zeure sukurtsalean edo dei egiguzu

900 40 50 60-ra

DEIA DOHA INIK



· · · kutxa · · ·

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián



ZU BAKARRIK ZARA NIRE AUTOA.

McCANN



BERTSIOAK: 3 eta 5 ate
 MODELOAK: CITY, SWING, SPORT, JOY Automatikoa, GLS y GSi.
 MOTOREAK: Gasolina Injekzioa 1.2 (45 CV), 1.4 (60 y 82 CV),
 1.6 16V. (109 CV); Diesel 1.5(50 CV) eta Turbodiesel (67 CV).

OPEL CORSA
NIRE AUTOA



Patrocinador Oficial
del Mundial de Fútbol
USA 94

OPEL

Z A I N G A U Z K A Z U

**10^o
URTEURRENA**

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

Zerbitzu Oficiala **ARETXABALETAN**

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.